



SUKALDEKO ZERRENDAK 2020

ERREKLAMAZIOAK

ERREKLAMAZIO-FORMULARIOA

Nola sartu erreklamazio-formularioan

Non:

Erreklamazio-formulariora sartzeko, esteka honetan klik egin beharko duzu:
https://educacion.hezkuntza.net/w58MantenimientosWar/formularioswebJSP/w58modificarformulario.do?accion=KEY_PREVISUALIZAR&idFormulario=31301&idioma=eu

Noiz:

Ezingo da erreklamazio-formulariora sartu harik eta erreklamazioak aurkezteko epea hasi arte: abenduaren 14tik 28ra (egun hori barne).

Nola:

Internerako konexioa duen **ordenagailu** batetik sartu behar duzu. Ezin da mugikorraren, tabletaren edo antzekoaren bidez egin. Ordenagailua erabili beharko da.

Nabigatzaile hauek erabiltzea gomendatzen da: Google Chrome, Mozilla Firefox eta Microsoft Edge. Ez erabili Internet Explorer.

Eskaeren zuzenketen inguruan garrantzitsua:

Zure eskaera zuzendu nahi baduzu, ez duzu zertan erreklamaziorik aurkeztu. Bakarrik sartu behar duzu Irakasleguneko "**Nire Eskaerak**" eremura (<https://irakaslegunea.euskadi.eus/eu/group/irakaslegunea/mi-cuenta-docentes>).





Datu pertsonalak

Formularioan sartu ondoren, dagozkion datuak bete beharko dituzu.

NAN/AIZ, abizenak eta izena, helbide elektronikoa eta lurraldea nahitaezkoak dira.

Erreklamazioa sinatutako agiri baten bidez erantsi beharko da.



SUKALDARIEN ZERRENDEN IREKIERA 2020 - ERREKLAMAZIOAK

DATU PERTSONALAK

NAN-AIZ *

Abizenak eta izena *

Emaila *

Lurralde *

DOKUMENTAZIOA


Erreklamazioa sinatuta Ningún archi... seleccionado

Beste dokumentazioa Ningún archi... seleccionado

Oharrak

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3-2018 Lege Organikoarekin bat etorritik, hautaketa-prozeduran parte hartu nahi duten pertsonen jakinarazten zaie eskaeran jasotako datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla, hautaketa-prozesua kudeatzeko. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira.


Euskadi, bien común

EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Egiaztageria lortzea

Erreklamazioa bidali ondoren, egindako bidalketaren egiaztageria agertzen da.



ikasgunea euskadi.eus

Bidalketa ondo egin da.

Bidalketa datuak honako hauek dira:
Zenbakia: **897225**
Gaia: **SUKALDARIEN ZERRENDEN IREKIERA 2020 - ERREKLAMAZIOAK**
Eskatzailea: **1. ABIZENA 2. ABIZENA, IZENA**
Data: **2020/11/12 10:41**
Egoera: **Eskabideak: epea zabalik**

[Frogagiriaren PDFa](#) [Eskaera inprimatu](#)

Aplikazioa itxeko, egin klik nabigatzailearen eskuineko botoian.

Euskadi, bien común

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eskatzaile bakoitzeko erreklamazio bat

Hautagaiek erreklamazio bakarra egin dezakete. Beste eskaera bat egin nahi badute, mezu hau agertuko zaie:

Formulario honi buruzko eskaera bat bidali duzu jada. Zure eskaera kontsulta dezakezu Irakaslegunearen Nire Eskaerak atalean

Irakasleguneko Nire Eskaerak atalean erreklamazioa kontsulta dezakezu, eta aldatu, erreklamazioak egiteko epea zabalik badago.